



[Iraunkortasunerako Ekintza Plana](#)  
[Berango 2006](#)

**BERANGOKO UDALA**

***IRAUNKORTASUNERAKO  
EKINTZA PLANA, 2006***

**2006ko urria**



## AURKIBIDEA

<b>1.- SARRERA</b> .....	2
<b>2.- ILDO ESTRATEGIKOEN HASIERAKO PROPOSAMENA</b> .....	3
<b>3.- EKINTZEN HASIERAKO PROPOSAMENA</b> .....	16
<b>1. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Lurraldearen eta hiri espazioaren antolamenduan iraunkortasun irizpideak sartzea .....	17
<b>2. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Ingurune naturala eta biodibertsitatea babestea. ....	18
<b>3. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Hiriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea .....	19
<b>4. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra sustatzea .....	21
<b>5. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatzea .....	22
<b>6. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Kutsaduraren eta zarataren aurka borrokatzea .....	23
<b>7. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Osasun, hezkuntza eta gizarte babeseko programak zabaltzea.....	24
<b>8. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Enplegua eta dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea .....	25
<b>9. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Kultura nahiz kirola indartzea eta sustatzea.....	26
<b>10. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Hizkuntzaren normalizazioa bultzatzea.....	27
<b>11. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Komunikaziorako bideak, hiritarren partaidetza eta ingurumenaren arloko hezkuntza hobetzea.....	28
<b>12. ILDO ESTRATEGIKOA</b> Udal zerbitzuen kudeaketa iraunkorra sustatzea.....	29
<b>4.- EKINTZEN EZAUGARRIAK</b> .....	30

## 1.- SARRERA


Iraunkortasun Diagnostikoa egin eta ikuskatu ondoren, eta hiritarrei bidezko kontsultak egindakoan, une honetan beste pauso bat eman behar da, *Iraunkortasunerako Ekintza Plana* diseinatzeko; programa horretan, hobekuntza jarduketa oso zehatzak jaso eta horiek epe laburrean, ertainean edo luzean garatu beharko dira, interesaren, irismenaren eta konplexutasunaren arabera. Horrela, lehenengo eta behin, *Iraunkortasunerako Ekintza Planaren* ildo estrategikoak zehaztu behar dira, hau da, bertan jasotako jarduketa proposamenak euskarrituko dituzten ardatz nagusiak. (Ikusi erantsitako grafikoa)

Ildo estrategiko bakoitza ezarrita lortu nahi diren helburuak zehaztu ondoren, garatu beharreko lanak azalduko dira; horiek betearazteko aurrekontuak kuantifikatu eta lehentasuna emango zaie beharrezko aldaketak gauzatzeko garrantzitsuenak direnei.

Horrenbestez, nahi den udalerrri eredia zehaztu behar da, eta, horretarako, lortu beharreko iraunkortasun helburuak finkatu, ildo estrategikoak zehaztu eta beharrezko jarduketak nahiz etapak ezarriko dira, helburua lortu ahal izateko.

Aldi berean, Uribe Kostako beste udalerrri batzuetako esperientzien jarraipen zorrotza egingo da; izan ere, zenbait udalerrri Toki Iraunkortasuneko prozesuetan murgilduta daude eta Berangokoen antzeko erronkak nahiz arazoak izan dituzte. Horien ekarpena oso lagungarria izan daiteke, okerreko biderik ez egiteko.

**Ekintza Planaren  
egitura**



## 2.- ILDO ESTRATEGIKOEN HASIERAKO PROPOSAMENA

Ondoren, ORTZADAR S.L. enpresako zerbitzu teknikoek aukeratu diren gai-ardatz horietariko bakoitzerako proposaturiko lerro estrategikoak azalduko ditugu; gainera, aplikazioan lortu nahi diren iraunkortasun irizpide nagusiak ere zehaztuko dira. Adibidetzat, aurretiaz finkaturiko helburuak lortzeko jarduketak jaso behar dituzten programak azaltzen dira.

Horrela, hamabi ildo estrategiko proposatu dira (ikusi taula), eta horien barruan era askotako ekintza eremuak sartzen dira; esate baterako, lurralde antolamendua, baliabide naturalen babesa, hiriko mugikortasunaren hobekuntza, euskararen erabileraren normalizazioa edo kultur eskaintzaren hobekuntza.

Izenburua	
<b>Ildo estrategikoak</b>	<b>1</b> Lurraldearen eta hiri espazioaren antolamenduan iraunkortasun irizpideak sartzea
	<b>2</b> Ingurune naturala eta biodibertsitatea babestea
	<b>3</b> Hiriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea
	<b>4</b> Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra sustatzea
	<b>5</b> Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatzea
	<b>6</b> Kutsaduraren eta zarataren aurka borrokatzea
	<b>7</b> Osasun, hezkuntza eta gizarte babeseko programak zabaltzea
	<b>8</b> Enplegua eta dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea
	<b>9</b> Kultura nahiz kirola indartzea eta sustatzea
	<b>10</b> Hizkuntzaren normalizazioa bultzatzea
	<b>11</b> Komunikaziorako bideak, hiritarren partaidetza eta ingurumenaren arloko hezkuntza hobetzea
	<b>12</b> Udal zerbitzuen kudeaketa iraunkorra sustatzea

Hurrengo orrialdeotan, ildo estrategiko bakoitzerako formulaturiko iraunkortasun helburuak azaldu eta horiek gauzatzeko aukeratu diren jarduketa programak zehazten dira.

## 1. ildo estrategikoa

### Lurraldearen eta hiri espazioaren antolamenduan iraunkortasun irizpideak sartzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Hirigintza hazkundearen mugak ezagutzea, lurraldearen eta ingurune naturalaren ezaugarriak aintzat hartuta.</li> <li>? Hiriaren berrikuntza sustatzea.</li> <li>? Lurraldearen diseinuan udalerriz gaindiko koordinazioa hobetzea.</li> <li>? Etxebizitzaren lorpena orokortzeko lan egitea.</li> <li>? Ekipamenduak eta aisiarako lekuak hobetzea.</li> <li>? Udalerriko ondare historiko-artistikoko elementuak suspertzea eta horiei balioa ematea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>LURZORUA IRAUNKORTASUNEZ ERABILTZEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>ETXEBIZITZA POLITIKA INTEGRALA SUSTATZEA</p> <p><b>3. PROGRAMA</b></p> <p>NARRIATURIKO ELEMENTUAK SUSPERTZEA ETA EREMU PUBLIKOAK HOBETZEA</p> <p><b>4. PROGRAMA</b></p> <p>ONDAREAREN KONTSERBAZIOA SUSTATZEA</p>

## 2. Ildo estrategikoa

### Ingurune naturala eta biodibertsitatea babestea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Interes naturalistikoa duten guneetarako kudeaketa tresna egokiak ezartzea.</li> <li>? Interes naturalistikoa duten guneak babestea eta suspertzea, ekosistema interesgarrietan esku-hartzeak bultzatuz.</li> <li>? Ezagupena, azpiegiturak eta hiritarren balioztapena hobetzea, gune berdeei eta eremu naturalei dagokienez.</li> <li>? Jatorrizko paisaia suspertzea eta higaduraren aurka borrokatzea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>INGURUNE NATURALA INDARTZEA</p>

### 3. ildo estrategikoa

#### Hiriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea eta garraio publikoa sustatzea.</li> <li>? Oinez eta bizikletaz ibiltzen diren pertsonak babestea eta horien alde egitea.</li> <li>? Garraiobide garbiagoak sustatzea.</li> <li>? Airearen eta zarataren kutsadura aurreikustea eta kontrolatzea.</li> <li>? Zerbitzu eta eremu publikoetan irisgarritasuna sustatzea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>GARRAIO PUBLIKOA BULTZATZEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO JARRAIBIDEAK ERABILTZEA</p> <p><b>3. PROGRAMA</b></p> <p>AUKERAKO GARRAIOBIDEAK SUSTATZEA</p> <p><b>4. PROGRAMA</b></p> <p>INGURUNE FISIKORAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEA</p> <p><b>5. PROGRAMA</b></p> <p>ISTRIPU ARRISKUA MURRIZTEA</p>

## 4. ildo estrategikoa

### Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra sustatzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Ura eraginkortasunez erabiltzea eta horren gastua murriztea.</li> <li>? Saneamendu sarea osatzea eta ibaibideetako uraren kalitatea hobetzea.</li> <li>? Etxeetako hondakinen sorrera aurreikustea eta kontsumo arduratsua sustatzea.</li> <li>? Jarduera arlo guztietan hondakinen kudeaketan sakontzea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>URA HORNITZEKO SAREA EGOKITZEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>IBAIBIDEETAKO URAREN KALITATEA ZAINTZEA</p> <p><b>3. PROGRAMA</b></p> <p>ETXEKO HONDAKINEN ETA ASIMILAGARRIEN BILKETA SELEKTIBOAREN KUDEAKETA HOBETZEA</p> <p><b>4. PROGRAMA</b></p> <p>BESTE HONDAKIN BATZUEN KUDEAKETA EGOKIA INDARTZEA</p> <p><b>5. PROGRAMA</b></p> <p>KONTROLIK GABEKO HONDAKINEK LURZORUAN ERAGINDAKO KUTSADURA MURRIZTEA</p>

## 5. Ildo estrategikoa

### Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Energiaren erabilera zentzuzkoa eta eraginkorra sustatzea.</li> <li>? Energiaren hornidura eta energia berriztagarrien nahiz garbien erabilera bultzatzea.</li> <li>? Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea, jardueraren arlo guztietan.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>ENERGIA KONTSUMOA MURRIZTEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEA ETA ENERGIA ERAGINKORTASUNA HANDITZEA</p> <p><b>3. PROGRAMA</b></p> <p>ARGIZTAPEN PUBLIKOA HOBETZEA ETA ARGI KUTSADURA MURRIZTEA</p>

## 6. ildo estrategikoa

### Kutsaduraren eta zarataren aurka borrokatzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<p>? Airearen eta zarataren kutsadura aurreikustea eta kontrolatzea.</p> <p>? Airearen kalitatea ebaluatzeko sistema hobetzea.</p>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>KONTROLEKO NEURRIAK EZARTZEA ETA KUTSADURA MURRIZTEKO JARRAIPENA EGITEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>KONTROLEKO NEURRIAK EZARTZEA ETA ZARATA MURRIZTEKO JARRAIPENA EGITEA</p>

## 7. ildo estrategikoa

### Osasun, hezkuntza eta gizarte babeseko programak zabalitzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketara programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Oinarrizko zerbitzuak biztanle guztien esku jartzea.</li> <li>? Gizarte kohesioaren eta justiziaren alde lan egitea.</li> <li>? Gizarte bazterkeriako eta mehatxuko egoerak zaintzea eta horien aurka egitea.</li> <li>? Garapenik gabeko zonekiko elkartasuna sustatzea.</li> <li>? Udal arreta hobetzea, hiritarren segurtasunik ezari loturiko egoeretan.</li> <li>? Udaltzaingoaren trebakuntza hobetzea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b> HEZKUNTZA SISTEMA HOBETZEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b> OSASUN SISTEMA HOBETZEA</p> <p><b>3. PROGRAMA</b> GIZARTE ESTALDURA HANDITZEA</p> <p><b>4. PROGRAMA</b> GAZTERIARI ARRETA ESKAINTZEA</p> <p><b>5. PROGRAMA</b> HIRITARREN SEGURTASUNA HOBETZEKO TRESNAK EZARTZEA</p>

## 8. ildo estrategikoa

### Enplegua eta dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Udalerriaren dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea.</li> <li>? Lanpostu duinaren lorpena bermatzea.</li> <li>? Talderik baztertuenak lan merkatuan sartzeko lan egitea.</li> <li>? Laneko istripuen prebentzioan kultura hedatzea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>HIRUGARREN SEKTOREA BULTZATZEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEA</p> <p><b>3. PROGRAMA</b></p> <p>LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA BULTZATZEA</p>

## 9. ildo estrategikoa

### Kultura nahiz kirola indartzea eta sustatzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Kultura sustatzea.</li> <li>? Udalerriko kultur egitura eta jarduerak dinamizatzea.</li> <li>? Kiroolari loturiko ohitura osasuntsuak sustatzea.</li> <li>? Kirol instalazioen eskaintza hobetzea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>KULTUR ETA AISIALDI ESKAINTZA ERAKARGARRIA SORTZEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>KIROL ESKAINTZA ERAKARGARRIA SORTZEA</p>

<h1 style="margin: 0;">10. ildo estrategikoa</h1> <h2 style="margin: 0;">Hizkuntzaren normalizazioa bultzatzea</h2>	
Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Biztanle guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea.</li> <li>? Udalaren eguneroko zereginetan hizkuntza-irizpideak erabiltzea.</li> <li>? Euskara ikastearen eta erabiltzearen alde lan egitea.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>UDALEAN HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAREN ALDE LAN EGITEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA SUSTATZEA</p>

## 11. Ierro estrategikoa

### Komunikaziorako bideak, hiritarren partaidetza eta ingurumenaren arloko hezkuntza hobetzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<ul style="list-style-type: none"> <li>? Udalaren eta hiritarren arteko zuzeneko komunikazioa sustatzea.</li> <li>? Iraunkortasunari loturiko kontzeptuak zabaltzea.</li> <li>? Kontsumo arduratsua bultzatzea.</li> <li>? Hiritarrak hiri kalitatea hobetu egin behar dela jabearaztea.</li> <li>? Hezkuntza-eragileen konpromisoa lortzea, baterako ingurumen heziketarako estrategia finkatzeko.</li> <li>? Udalerria ingurumen hezkuntzarako gune bihurtzen duten faktoreak sustatzea.</li> <li>? Ondasunak, zerbitzuak eta aukerak modu orekatuan lortzen erakustea.</li> <li>? Biztanleriaren partaidetza sustatzea, udal politiken erabaki-prozesuetan.</li> </ul>	<p><b>1. PROGRAMA</b></p> <p>UDAL GAI INTERESGARRIEN ZABALKUNDEA EGITEA</p> <p><b>2. PROGRAMA</b></p> <p>HIRITARREN PARTAIDETZA ETA ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEA</p> <p><b>3. PROGRAMA</b></p> <p>INGURUMEN HEZKUNTZAREN ESKAINTZA FINKATZEA</p>

## 12. ildo estrategikoa

### Udal zerbitzuen kudeaketa iraunkorra sustatzea

Iraunkortasun helburuak	Jarduketa programak
<p>? Udal administrazioaren eguneroko zereginetan iraunkortasun irizpideak erabiltzea.</p> <p>? Administrazioan ingurumen kudeaketako tresnak sustatzea.</p>	<p><b>4. PROGRAMA</b></p> <p>IRAUNKORTASUN IRIZPIDEETAN OINARRITURIKO UDAL KUDEAKETA SUSTATZEA</p> <p><b>5. PROGRAMA</b></p> <p>ORDENANTZAK IDAZTEA</p>

### **3.- EKINTZEN HASIERAKO PROPOSAMENA**

Hurrengo orrialdeotan, Berangon datozen urteotan inplementatu beharko liratekeen ekintzak zerrendatzen dira. Lau edo bost urterako ekintzak proposatu dira, eta, aldi hori igarotakoan, beste ebaluazio bat egin eta helburuak nahiz ekintzak berriro planteatu beharko lirateke.

Ekintzak zazpi talde nagusitan txertatzen dira, euren ezaugarrien arabera. Horrela, honako ekintza hauek bereizten dira:

- Sentsibilizaziokoak, iraunkortasun kontzeptuak zabaltzeko eta horien inguruko heziketa egiteko, eta jarduketa bateratuaren, koordinatuaren eta orokorraren beharra nabarmentzeko.
- Araudian sartzekoak edo aldatzekoak, erabilerak edo jarduerak arautzeko eta legeria gaurkotzeko.
- Aldaketarako ekintzak eta jarrerak bultzatzeko pizgarri ekonomikoak adierazten dituztenak.
- Ekipamenduak eta azpiegiturak lortzekoak.
- Udal errealitateko alderdi guztietan iraunkortasun irizpideak sartzekoak.
- Aldatu beharreko alderdiak hobeto ezagutzeko ikasketak eta planak proposatzekoak.
- Kudeaketakoak, adibidez, ingurumen kontrola, tramitazio prozedurak edo udalerriz gaindiko jarduketaren eskaria.

# 1. ildo estrategikoa

## Lurraldearen eta hiri espazioaren antolamenduaren iraunkortasun irizpideak sartzea

### 1.P. LURZORUA IRAUNKORTASUNEZ ERABILTZEA

- 1.1.1. AASSetan adierazitako biztanleria muga aintzat hartzea.

### 2.P. ETXEBIZITZA POLITIKA INTEGRALA SUSTATZEA

- 1.2.1. Udalerrian dagoen etxebizitza beharrianari buruzko ikerketa egitea.
- 1.2.2. Lonjak etxebizitzatzat gaitzeko aukera aztertzea.
- 1.2.3. Lurzoruari buruzko lege berria aplikatzea, onesten denean.

### 3.P. NARRIATURIKO ELEMENTUAK SUSPERTZEA ETA EREMU PUBLIKOAK HOBETZEA

- 1.3.1. Karabigane, karabiazpi eta Kurtxe auzuneen hirigintza jarduketa eta hobekuntza egitea.
- 1.3.2. Udaletxe atzeko parkeko hiri-altzariak konpontzea eta hobetzea.
- 1.3.3. Parke publikoen mantenamenduarekin jarraitzea.
- 1.3.4. Metroko geltokiaren ostean, Eroskirantz, dagoen zona berdea garbitzea.

### 4.P. ONDAREAREN KONTSERBAZIOA SUSTATZEA

- 1.4.1. Kontserbazio egokirako jarduketak egitea.

## 2. **ildo estrategikoa** Ingurune naturala eta biodibertsitatea babestea

### 1.P. INGURUNE NATURALA INDARTZEA

- 2.1.1. Berangon ibilbide laburren eta zidorren sarea sortzea.
- 2.1.2. Udalerriko zidorrak egokitzea.
- 2.1.3. Gobela ibaia eta udalerritik igarotzen diren ibai nahiz erreka guztiak garbitzeko taldea antolatzen jarraitzea.
- 2.1.4. Aldundiari bere eskumeneko errepideen bazterbideak egokitzeke eskaria egitea.
- 2.1.5. *Eskualdeko udalerrien eta bertako baliabide naturalen kartografia diseinatzea eta egitea. MANKOMUNITATEA*
- 2.1.6. *Udal lurretan espezie autoktonoetako zuhaitzak birlandatzea eta proiektua lur pribatuetara hedatzea, jabeek eskatuz gero. MANKOMUNITATEA*
- 2.1.7. *Zuhaitz autoktonoen aleak auzotarren artean banatzea, horiek eskatuz gero. MANKOMUNITATEA*
- 2.1.10 BFArekin hitz egitea, Muñarrikolandako sarbidea eta horren mantenamendua hobetzeko.
- 2.1.11 Zona berdeak, lorategiak eta abar ondo kontserbatzen jarraitzea.
- 2.1.12 Zona berdeetan zuhaitz gehiago landatzea.

## 3. Ierro estrategikoa

### Hiriko mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzea

#### 1.P. GARRAIO PUBLIKOA BULTZATZEA

- 3.1.1. Udalerritik igarotzen diren Bizkaibusen lineen maiztasuna handitzeko behar diren kudeaketa guztiak egitea.

#### 2.P. MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO JARRAIBIDEAK ERABILTZEA

- 3.2.1. Mugikortasun ikerketak aparkatzeko arazoak zuzentzeko jasotzen dituen neurriak aplikatzea.
- 3.2.2. Eroskitik Sopelanarako oinezkoen sarbidea egitea.
- 3.2.3. Aparkatzeko zonak egitea eta ondo seinaleztatzea.
- 3.2.4. Errepideak mantentzeko politika hobetzea.

#### 3.P. AUKERAKO GARRAIOBIDEAK SUSTATZEA

- 3.3.1. Berangon bidegorri sarea egitea.
- 3.3.2. Auzuneak bizikletaren bidez lotzen dituen sarea sortzea.
- 3.3.3. Bizikleta garraiobidetzat sustatzea.
- 3.3.4. *Bidegorriak eta oinezko nahiz bizikletako ibilbideak seinaleztatzea.*  
**MANKOMUNITATEA**
- 3.3.5. Getxotik igarotzen den bidegorriarekiko lotura egitea.
- 3.3.6. Kurtxetik igarotzen den bidegorriarekiko lotura egitea.

#### 4.P. INGURUNE FISIKORAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEA

- 3.4.1. Tailerrak udalerrriaren kanpoaldera eramatea, hirigintza jarduketa berriaren ostean.
- 3.4.2. Sabino Arana kaleko oztopo arkitektonikoak ezabatzea.
- 3.4.3. Goiko igarobideetako ur-putzuen arazoa konpontzea.
- 3.4.4. Arana Bideko espaloien gainean aparkatzearena konpontzea.
- 3.4.5. Kontrol handiagoa egitea, jendeak bigarren ilaran ez aparkatzeko.
- 3.4.6. Sabino Aranan, Basotxun, Axganen, karabiazpin, Karabiganen eta abarrean oinezkoari lehentasuna emateko jarduketak egitea.
- 3.4.7. Ideien proiektua egitea, Kurtxerako sarbidea konpontzeko.
- 3.4.8. Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko neurriak instalatzeko hobariak ematen jarraitzea.
- 3.4.9. Irisgarritasun Plana aplikatzen jarraitzea.
- 3.4.10. Udal instalazioak irisgarritasunari buruzko legera egokitzea.
- 3.4.11. Espaloien mantenamendua hobetzea.

#### 5.P. ISTRIPU ARRISKUA MURRIZTEA

- 3.5.1. Gidarien eta oinezkoen bide-hezkuntza sustatzea.
- 3.5.2. Itsuentzako semaforoak eta segundoak zenbatzen dituzten semaforoak instalatzea.

## 4. **ildo estrategikoa** **Uraren eta hondakinen kudeaketa iraunkorra sustatzea**

### **1.P. URA HORNITZEKO SAREA EGOKITZEA**

- 4.1.1. Udal sareko ihesen eraginezko ur galera ikertzea.
- 4.1.2. Udal instalazioetan ura aurrezteko neurriak sartzea.
- 4.1.3. Uraren kontsumoa murriztu beharraz jabearazteko kanpainak egitea.
- 4.1.4. Ura aurrezteko neurriak hartzeko sustapena egitea edo dirulaguntzak ematea.

### **2.P. IBAIBIDEETAKO URAREN KALITATEA ZAINITZEA**

- 4.2.1. Udalerritik igarotzen diren ibai eta erreka guztietako uraren kalitatea aztertzea.

### **3.P. ETXEKO HONDAKINEN ETA ASIMILAGARRIEN BILKETA SLEKTIBOAREN KUDEAKETA HOBETZEA**

- 4.3.1. Igandeetako *botellon* deritzonaren aurkako garbiketa planarekin jarraitzea.
- 4.3.2. Birziklapena sustatzeko kanpainak egitea.
- 4.3.3. Pilak batzeko edukiontziak dituzten establezimendu kopurua handitzea.
- 4.3.4. Edukiontzirik gabeko auzuneak ebaluatzea eta beharrezko guztiak jartzea.
- 4.3.5. *Konpostari buruzko sentsibilizazio eta orientazio gidaliburua editatzea. MANKOMUNITATEA*
- 4.3.6. *Udalerrian konposterako mikroestazioa instalatzea. MANKOMUNITATEA*
- 4.3.7. *"Aterik aterako" eta "bilketa guneko" zerbitzua instalatzea, bolumen handiko hondakinatarako. MANKOMUNITATEA*
- 4.3.8. *Papera eta kartoia biltzeko edukiontzien orde berriak jartzea. MANKOMUNITATEA*
- 4.3.9. *Hiritarrak eta saltzaileak jabearazteko eta sentsibilizatzeko kanpainak diseinatzea eta aurrera eramatea, liburuxkak argitaratuta, kartelak jarrita,...* MANKOMUNITATEA
- 4.3.10. *Konpostaren inguruko proiektu aurrendaria. MANKOMUNITATEA*
- 4.3.11. *Ehunen birziklapena kudeatzea. MANKOMUNITATEA*
- 4.3.12. *Etxeko olioaren birziklapena kudeatzea. MANKOMUNITATEA*
- 4.3.13. Lurpeko edukiontziak jartzeko aukera aztertzea.
- 4.3.14. Pilen edukiontzien kokalekuari buruzko informazioa ematea.

### **4.P. BESTE HONDAKIN BATZUEN KUDEAKETA EGOKIA INDARTZEA**

- 4.4.1. Enpresek euren hondakinak kudeatzen dituztela kontrolatzea.

### **5.P. KONTROLIK GABEKO HONDAKINEK LURZORUAN ERAGINDAKO KUTSADURA MURRITZEA**

- 4.5.1. Kontrolik gabeko hondakindegien sorrera edo presentzia kontrolatzea.
- 4.5.2. Lehendik dauden edo sortzen diren kontrolik gabeko hondakindegia ezabatzea edo suspertzea.
- 4.5.3. Kontrolik gabeko hondakindegizat erabiltzen diren zonatarako sarbideak ixtea eta Garbiguneari buruzko informazioa ematea.

## **5. ildo estrategikoa** **Energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatzea**

### **1.P. ENERGIA KONTSUMOA MURRIZTEA**

5.1.1. Udal instalazioetan kontsumo baxuko bonbillak jartzea.

### **2.P. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEA ETA ENERGIA ERAGINKORTASUNA HANDITZEA**

5.2.1. Udal eraikinetan eta instalazioetan eguzki-panelak instalatzeko aukera ikertzea.

### **3.P. ARGIZTAPEN PUBLIKOA HOBETZEA ETA ARGI KUTSADURA MURRIZTEA**

- 5.3.1. Argi-kutsadura ekiditea, globo motako farolen ordez farola egokiak jarrita.
- 5.3.2. Argiztapen publikoa hobetzen jarraitzea.
- 5.3.3. Landa inguruetako argiztapena hobetzea.
- 5.3.4. Udaletxe atzeko parkeko argiztapena hobetu beharra aztertzea.

## **6. ildo estrategikoa** **Kutsaduraren eta zarataren aurka borroktzea**

### **1.P. KONTROLEKO NEURRIAK EZARTZEA ETA KUTSADURA MURRIZTEKO JARRAI PENA EGITEA**

6.1.1. Udalerriko airearen kalitateari buruzko informazioa ematea.

### **2.P. KONTROLEKO NEURRIAK EZARTZEA ETA ZARATA MURRIZTEKO JARRAI PENA EGITEA**

- 6.2.1. Beharrezko lekuetan kutsadura akustikoa ekiditeko neurri zuzentzaileak hartzea.
- 6.2.2. Hirigintza jarduketa berrien ostean, zaratak sortzen dituzten jarduerak hirigunetik ateratzeko ahalegina egitea.
- 6.2.3. Udalerriko zaraten mapa egitea.

## **7. Ildo estrategikoa**

### **Osasun, hezkuntza eta gizarte babeseko programak zabaltea**

#### **1.P. HEZKUNTZA SISTEMA HOBETZEA**

- 7.1.1. 2 urteko haurrentzat ikasgela gehiago sortzeko aukera aztertzea.
- 7.1.2. 0-2 urteko haurrak haurtzaindegietan dituzten familiei dirulaguntzak ematea.
- 7.1.3. Eskolako 21. Agenda sustatzea.

#### **2.P. OSASUN SISTEMA HOBETZEA**

- 7.2.1. Osakidetzari udalerrian larrialdi zerbitzua jartzeko eskabidea egitea.
- 7.2.2. Osasun-etxeko euskarazko arreta sustatzea.
- 7.2.3. Osakidetzari pediatriako espezialitatea zabalteko eskabidea egitea.
- 7.2.4. Anbulatorioan telefonozko arreta hobetzeko eskabidea egitea.

#### **3.P. GIZARTE ESTALDURA HANDITZEA**

- 7.3.1. Adineko pertsonentzat sustapen taldeak sortzea.
- 7.3.2. Herri osoari irekitako gizarte-etxea sortzea, era guztietako jarduerak sustatzeko.
- 7.3.3. Adineko pertsonentzako egoitzak beheko solairuetan edota lonjetan instalatzea baimentzeko aukera aztertzea.

#### **4.P. GAZTERIARI ARRETA ESKAINTZEA**

#### **5.P. HIRITARREN SEGURTASUNA HOBETZEKO TRESNAK EZARTZEA**

- 7.5.1. Ertzaintzari asteburuetan zaintza eta presentzia handiagoa eskatzea, aisialdiko nahiz jolasaldiko zonetan eta diskoteketan.
- 7.5.2. Lapurretak ekiditeko informazioa ematen duen liburuxka egitea.
- 7.5.3. Herri barruko diskotekak ezabatzeko ahalegina egitea.

## 8. **ildo estrategikoa** Enplegua eta dibertsifikazio ekonomikoa sustatzea

### 1.P. HIRUGAREN SEKTOREA BULTZATZEA

- 8.1.1. Merkataritza sektorearen garapena hobetzea, hiri zonak hobetuta.
- 8.1.2. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren salbuespenarekin jarraitzea.

### 2.P. ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEA

- 8.2.1. Udalerriko auzotarrak kontratatzearen aldeko politikarekin jarraitzea.
- 8.2.2. *Mankomunitate azpiegitura kudeatzea, enpresa proiektu berriak bultzatzeko. BEHARGINTZA*
- 8.2.3. *Eskualdeko enpresen tutoretza eta jarraipena kudeatzea. BEHARGINTZA*
- 8.2.4. Udalerriko enpresek Berangoko auzotarrak kontratatzeko sustapena egitea.
- 8.2.5. *Eskualdeko enpresetarako azpiegitura komuna kudeatzea. BEHARGINTZA*
- 8.2.6. *Enpresa-sustatzaileentzako heziketa ekintzak egitea. BEHARGINTZA*
- 8.2.7. *Heziketa iraunkorreko arloa sortzea eta kudeatzea. BEHARGINTZA*
- 8.2.8. *Enpresa-sustatzaileen negozioko planen jarraipena eta tutoretza egitea. BEHARGINTZA*
- 8.2.9. *Inoren konturako enpleguko, lan orientazioko eta eskaintzen informazioko zerbitzua mantentzea. BEHARGINTZA*
- 8.2.10. Udalerriko enpresekin eta pertsonekin lan-poltsa sortzea.

### 3.P. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA BULTZATZEA

- 8.3.1. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/95 legea bete egiten dela kontrolatzea.
- 8.3.2. Laneko segurtasun arauak bete egiten direla ikuskatzea.
- 8.3.3. Egiten diren herrilanak ondo seinaleztatzea.

## 9. **ildo estrategikoa** **Kultura nahiz kirola indartzea eta sustatzea**

### **1.P. KULTUR ETA AISIALDI ESKAINTZA ERAKARGARRIA SORTZEA**

- 9.1.1. Jaietan adin guztietarako jarduerak ugaritzeko aukera aztertzea.
- 9.1.2. Gaztelekuko jarduerak eta adin lerrunak zabaltzeko aukera ikertzea.
- 9.1.3. Gaztelekun egiten diren jarduerekin jarraitzea.
- 9.1.4. Kultur taldeei laguntzak eta dirulaguntzak ematen jarraitzea.
- 9.1.5. Liburutegiko fondoak hobetzea.
- 9.1.6. KZ Guneak eskaintako jarduerak ugaritzen saiatzea.
- 9.1.7. Hiritarrei KZ Guneak eskaintzen duen programari buruzko informazioa ematea.
- 9.1.8. Kultur Etxeko ikastaroetara doazen asistentzia kontrolatzea.

### **2.P. KIROL ESKAINTZA ERAKARGARRIA SORTZEA**

- 9.2.1. Polikiroldegia sortu beharra aztertzea.
- 9.2.2. Asteburuetan eskolatik kanpoko kirol instalazioak irekitzeko aukera ikertzea.
- 9.2.3. Futbol-zelaian belar artifiziala instalatzea eta hori jendeari irekitzeko nahiz alokatzeko aukera aztertzea.
- 9.2.4. Udalak kirola egiteko ematen dituen laguntzei buruzko informazioa ematea.
- 9.2.5. Oraingo kirol eremuak egoera onean mantentzea.

## 10. **ildo estrategikoa** Hizkuntzaren normalizazioa bultzatzea

### 1.P. UDALEAN HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAREN ALDE LAN EGITEA

10.1.1 Informazioa, iragarkiak, bandoak, kartelak eta abar euskaraz eta erdaraz bidaltzen jarraitzea.

### 2.P. EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA SUSTATZEA

10.2.1 Udalak euskara ikasteko ematen dituen laguntzei buruzko informazioa ematea.

# 11. ildo estrategikoa

## Komunikaziorako bideak, hiritarren partaidetza eta ingurumenaren arloko hezkuntza hobetzea

### 1.P. UDAL GAI INTERESGARRIEN ZABALKUNDEA EGITEA

- 11.1.1. *KOSTABARRI* aldizkariko ale kopuru eta aldizkakotasuna handitzea. MANKOMUNITATEA
- 11.1.2. Udalerrietako eta mankomunitateko web orriaren kalitatea eta edukiak hobetzea, garapen iraunkorrari dagokionez. MANKOMUNITATEA
- 11.1.3. Udalerriko gidaliburua argitaratzea.
- 11.1.4. Nazioarteko lankidetzak laguntzek helburu duten programei buruzko informazioa ematea.

### 2P. HIRITARREN PARTAIDETZA ETA ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEA

- 11.2.1. Hiritarrei egiten diren jardueri buruzko informazioa ematen jarraitzea.
- 11.2.2. Udalerriko elkarteei buruzko informazioa ematea.
- 11.2.3. Elkarteei laguntza eta dirulaguntza gehiago ematea.
- 11.2.4. Hiritarren partaidetzarako foroak sustatzea eta bultzatzea, 21. Toki Agendari dagokionez.

### 3.P. INGURUMEN HEZKUNTZAREN ESKAINTZA FINKATZEA

- 11.3.1. Eskolako 21. Agenda diseinatzea eta betearaztea.
- 11.3.2. Haurrentzat egiten diren ingurumen jarduerekin jarraitzea.

## 12. **ildo estrategikoa** Udal zerbitzuen kudeaketa iraunkorra sustatzea

### 1.P. IRAUNKORTASUN IRIZPIDEETAN OINARRITURIKO UDAL KUDEAKETA SUSTATZEA

- 12.1.1. Iraunkortasun irizpideak sartzea, udal erabakiak hartzeko elementutzat.
- 12.1.2. Pintadak garbitzen jarraitzea.
- 12.1.3. *Udalean Ekoskan bat egitea (eta udal instalazioak,...). MANKOMUNITATEA*
- 12.1.4. *Udalaren barne dinamizazioa, baita Uribe Kostako beste udalerrri batzuen dinamizazioa ere, Toki Ekintzako Planak betearazita, barne heziketa eginda eta hiritarren partaidetza nahiz komunikazioa gauzatuta. MANKOMUNITATEA*
- 12.1.5. *G.I.S. deritzonaren diseinua eta ezarkuntza; bertan, udalerrian kokaturik dauden bilketa selektiboko edukiontzi guztien kokalekua eta datu garrantzitsuak agertuko dira. MANKOMUNITATEA*
- 12.1.6. Aurrekontuaren %0,7 Nazioarteko Lankidetzara bideratzea.
- 12.1.7. Nazioarteko lankidetzara programekin jarraitzea.

### 2.P. ORDENANTZAK IDAZTEA

#### 4.- EKINTZEN EZAUGARRIAK

Ondoren datozen azalpen-fitxen helburua Berangoko Iraunkortasunerako Ekintza Planean jasotako ekintzen ezaugarriak adieraztea da. Horien egitura hobeto ulertzeko, ekintza horiek sailkatzen eta horien kontrolerako nahiz jarraipenerako mekanismoak ezartzen lagunduko duten kontzeptuak agertzen dira.

<b>Kodea</b>	Ildo estrategikoa (lehenengo digitua), programa (bigarren digitua) eta ekintzaren ordena (ildo estrategikoaren nahiz programaren barruan - hirugarren digitua-) adierazteko zenbakia da.
<b>Izenburua</b>	Proiektuaren edo jarduketaren izena edo izenburua da.
<b>Ildo estrategikoa</b>	Ekintza plana egituratzeko oinarrizko helburuak dira, eta horren barruan sartzen da.
<b>Programa</b>	Tokiko Ekintza Plana egituratzen duten helburuak dira, eta ekintza horren barruan sartzen da.
<b>Azalpena</b>	Puntu honetan ekintzaren, horren justifikazioaren eta abarren azalpen laburra egiten da.
<b>Lehentasuna</b>	Ekintzaren garrantzia edo interesa ezartzen du, eta hori altua, ertaina edo baxua izan daiteke.
<b>Betearazteko edo ezartzeko epea</b>	Ekintza bat egiteko edo iraun behar duen ekintza bat ezartzeko aurreikusitako aldia da. Laburra (0-1 urte), ertaina (1-3 urte) edo luzea (3-5 urte) izan daiteke.
<b>Aldizkakotasuna</b>	Ekintza gauzatzeko maiztasuna da, eta jarraitua izan daiteke. Urterokoa edo urte anitzekoa izan daiteke.
<b>Aurrekontua (€)</b>	Ekintza bat gauzatzeko kalkulatzeko den kostua da.
<b>Adierazleak</b>	Ekintzari zuzen edo zeharka loturiko adierazlea edo adierazleak.
<b>Betearaztearen kontrola</b>	Ekintza gauzatzean egindako aurrerapena adierazten du. Horrela, hasi barik, hasita, aurreratuta edo amaituta dagoen adieraziko du.
<b>Erakundeak eta eragileak</b>	Ekintza betearazteko ardura dutenak dira.
<b>Finantziazio iturria</b>	Ekintza betearazteko aukera ematen duten finantza-tresnak adierazten ditu.